




**ZER**  
**ALDIZKARIA**

444. zenbakia  
2018 URTARRILLA

**Bizkaitarrei**  
**Bizkaieraz**



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) • [info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)



Lekeitiar erraldoia  
Resurrecion María  
de Azkue

**ZORION ETA**  
**URTE BARRI ON**

# Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

## 2017-2018 IKASTURTEA

**BIZKAIERAZ 50. IKASTAROA  
IRU MAILLA**

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 9an

**50. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO  
3 NIVELES**

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 9 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
ES28 2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**

**Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.**

**Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.**

**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85





## Lekeitiar erraldoia Resurreccion Maria de Azkue

*Klaudio Barroeta*

### 1. ATALA

#### I.- Jaiotza Lekeition

Lekeitioko Andra Mari Parrokiko Bataiatuen Liburuen Bataio agiri au agertzen da: Resurreccion de Jesus Maria de las Nieves Azkue Aberasturi, gaur goizaldeko ordu bat eta laurdenetan jaio, milla eta zortzireun eta irurogei eta laugarren Abustuan bostean. Edurtzetako Amaren egunean jaio zan, ara or bigarren izenaren arrazoia.

#### 2.- Leen ikasketak.



Bederatzi urte bete zituan ikastaroko leen bi illabeteetan aitak laguntzen deutso etxeko lanak egiten baña aite ilten jakonean ez dau ikastetxetik etxera ekarriko Raimundo de Migelen Latin Gramatika. Oñarrizko giza-gaiak ikasten jarraitzen dau 1876an Lekeitioko Nautika Eskolan sartzeko azterketetan onartua izan arte. Baiña eskola onetan 1878 arte jarraitu arren, etxako karrera au gogozkoa izango.

1876an bere osaba ta aitabitxi dan Erramon Aberasturi, ontzi-kapitanak, Cartagenaraño eroango dau loba gaztea kabotaia ostera batera eta itzulikeran, Lisboatik Liverpoolaraño, Azkuek bere idazketan diñoskunez izugarrizko ekiatz bat sortu zan itsaz zabalean, itsasorako zaletasuna kendu eutsona. Baña ez eutson bideiatarako zaletasuna kendu 12 urtekez Ingalaterran egonda zanari.

Leen ikastaroan lortu ebazan ondorenak ez ziran ain onak izan ikasleen artean, naiz eta Latin, Gastelania eta Fisika-Kimika ikasgaietan bikain mallan geratu.

#### 3.- Abadetzarako eziketa eta abadegintza.

Batxillergoa amaitu ebanean Gazteizko Abadetegira jo eban 1881.eko Iraillean. 1885 arte egin ebazan bertan, Filosofia ta Teologiako estudioak. Entzun daigun garai onetan Azkuek diñoskuna: Gaztetxo nintzan (ogei urte or-or nebazan) eta Seminarioko asti oporretan erriaren aotik ipuin



edo irakurgai bat edo beste ikasten ari izan nintzan. Gerostik erri ikerketen erraldoi bakarti eta berezia dogu Azkue Jauna.

Salamankako Seminarioan jarraitzen dauz ikasketak. Dirulaguntza eskatu bearrean arkituten da eta organulari ta abeslari gisa agertzen da. Bertan burutu dauz Oratoria, Patrologia ta Elizlegeak. Lekeition emongo dau bere Meza Barria 1888eko Mikel Deunaren egunean. 1893eko Ekainaren 26an Doktor titulua lortuko dau Salamankako Seminarioan.

#### 4.- Euskerazko katedra bizkaiko Instituoan.

1887.eko Azaroaren 8an. Aureliano Galarza Mungiako Legegizon eta Gernika Barrutiko Diputatuak euskerazko doako katedra bat Bizkaiko Instituoan sortzea proposatzen dio Bizkaiko Diputaziari. Urrengo Azaroaren 17an leiaketako baldintzak argitaratzen dauz Bizkortze Batzordeak. 1888eko. Martxoaren 31 arterañoeko epea emoten iake eskatzallei. Bere eskariakin batera Grankanton Arrantzaleak euskerazko kondaira bat, eta euskal gramatika baten zati batzu aurkezten dauz Azkuek.

Eskarien onartzerako epea amaizen danean, tituludun bi agertzen dira: Migel Unamuno, Filofia eta Letradun Doktorea eta Resurrecion Maria Azkue, Batxiller tituluduna. Leiaketarako onartuak dira, baita Sabino Arana eta Goiri, Luis Iza eta Pedro Alberdi. Eustakio Madinaren eskaria eptik kanpo geratzen da. Zozketara jo eban Batzordeak arazoa erabakitzeke eta azkenean amaika boto emon eutsozan Azkueri eta iru Unamunori. Azkue diakonoa zan oraindik eta Uztaillean abadeturik, gertu dago lanpostu barri eta garrantzitsuari bear dan bezelako erantzuna emoteko. 1888eko Abustuaren 30an mezu bat bialtzen dautso Azkueri Batzordeak Lekeitiona, Ikasketarako Egitaraua eta Ikastolaren Araudia aurkeztu egian eskatuz. 1888eko Urrian jartzen da Azkue Katedraren arduretana.

1903-1904 ikastaroa asi arte zuzendu eban Azkuek Katedra au. Iztegiaren argitalpen zirala ta ikastaro bi edo egingo ebazala Toursen susmatu eban Azkuek eta Ebaristo Bustintza "Kirikiño" proposatu eutson ordezeko Bizkaiko Diputazioari. Iragandako ikastaroan Azkueren irakaskuntza jarraitu eban Kirikiño Ibaizabal aldizkariaren zuzendaria zan sasoi aretan. Urrengo 20 urtetan zuzenduko eban Kirikiño Katedra au.

Instituto maillan soillik euskera irakastea ez jakon naikoa iduritu Azkueri eta urrengo urteetan Ikastetxe izena emon eustson oñarrizko euskal eskola bat sortzen saiatu zan, azkenean Jardines kaleko orduko 10 zenbakiaren bigarren solairuan 1896eko Urrian zabaldu ebana. Ikastetxe onetan aurrak egozan egunez eta eskola orduak amaitu ostean bertan biltzen ziran Euskaldun Biltokia elkartekoak, urte bereko azken egunetatik asita. Eta leku onetan egon zan Azkuek berak ia bakarrik, euskeraz argitaratzen eban Euskerazale aldizkariaren zuzendaritza.


### 5.- Azkueren etxeko bizitza.

1890 inguruan Azkueren ekintza garrantzitsuen ugaritasuna zabalitzen ari da. 26 urte bete dauz eta La Abeja (Erlea) aldizkari baten sorkide da eta bertan azaltzen dauz lan batzuk. Amarraldi onetan D'Abadie, Intxauspe, Dogson, Adema eta abar euskalariekin artuemonetan dabil, bere ta besteren lanak argitaratzen dauz, musikagintzan dabil, zarzuelak musikatzen ditu, eta abar. Gizon polifazetikua biurtzen zaigunez gero, banan banan bere bizitzaren alderdiak ikustea komenigarri izango da. Baña ori egin orduko, on Resurreccionen etxe inguruko etxe bizitzaz xetasun batzuk azaltzea dagokit.

Gizon gorputsua zan Azkue, gaztetan eun kilotik gora eduki ebazana. 78 urte zituelarik, 75 kilo ebazala aitortuten deusku berak, naiz eta urte gitxi dirala 101 kilo eduki. Osasuntsu zan benetan eta ez zan iñoz gaxorik egon; birritan baño ez zan laneziñezko

zorian aurkitu bi istripu jasan ebazanean: 1903.eko Uztailean, Bilbaon tranbitik jausi eta besoa apurtu ebanean, eta bestea geroago, erorketa batean saietza ausi jakonean; baña lanari ekin ein eutson 1928. etik Azkuek il arteraño onen gelari izan zan Felizitas Olabarrieta Zarragak iragarri deuskunez. Berrogei urte edo ebazala ortzduaren kexa agertuten eban, baña Kolonian egon zanean konpondu ebazan ortzak amar peseten ordañez.

Urria zan Azkue bere bizitzako alde guztietan. Urrijatuna zan. 1904.eko Gabon gaubeko afaria, Toursen egoala, zera izan zan: "txokolate ta esne katillu bat eta sagar bi". Azkuek "Felisa" deituten eban Felicitas Olabarrietak diñoskunez, oso gitxi jaten eban eta bazkari eta afari orduetan







edalontzi bete ardao sifoiarekin edaten eban. Goizeko 8 terdietan gosaria eroaten eutson Felisak Erribera kaleko lantokira; kafesnea bakarrik artuten eban eta ordu bat eta erdietako bazkal ordurarte ez eban ezer dastatzen. Bere diru apur guztiak liburu erosketetan eta bidaietan gastatzen ebazan eta Azkueren etxeko jatekoa oso urria zan. Azkueren etxean ez egoan gramofonorik, ez eta irratiaparallurik, 1940an edo bata erosi eban arte.

Txukuna zan jazkeran, baña parra parra gastatu barik. Alemaniako sotanak jazten ebazan eta Abade kapelak Gazteizen erosten ebazan. Tabakoa erretzen 80 urtedun asi zan. Ordurarte eta Kolonian 35 urtekin egon zanetik rape erretzen eban eta Alemaniatik ekartzeko moldatzen zan; iñoiz Higinio Angles musikologoak billatu utsola badakigu. Germanzalea zan Azkue eta Ricardo Wagnerren goreslea.

1890.eko udal erroldan Campo de Volantin kalearen leen zenbakiko etxean, laugarren solairuan agertuten da lenengoz auzotuta. Ama eta Aurora eta Diana arraba biekaz bizi da. Euskera irakasle lez agertuten da. Urte bi geroago, 1892an, Katedratiko da ogibidea.

1895an etxea aldatzen dau eta Campo de Volantin kaleko 15, etxera, irugarren solairura aldatzen dau egoitza, il arte bizi toki izango dana. Denbora gitxi emoten eban Azkuek etxean egun osoa bear lekuan betetzen ebalako. 1919an Euskaltzaindia sortu zanean, orduko Erribera kaleko 18 zenbakian, oraingo 6.an. Akademiaren egoitza ipinteko alegindu zan Bilboko Udala. Goizaldetik gauberarte lan egiten eban bertan Azkuek. 1922.eko Otsaillaren 23 eta 24 an bildu zan lenengoz Euskaltzaindia egoitza onetan. 1916.etik asita berarizko idazkaria eduki eban Azkuek, Santiago Basilikan barrutiratuta egoan Gregorio Maidagan abadea. Mandatuak egiteko beba egoan Akademian mutil bat, Markos Bernaola.

Goiztarra zan Azkue. Bilbon goizeko seiretan jagiten zan; sei terdietan mezea emoten eban San Nikolas Perrokian eta bertan egoten zan gogokotetan edo abade otoitzetan zortzirak arte, eguneroko lana Erriberako lantokian egitera joan arte. Ara eroaten eutson gosaria Felisak. Eguerdian bazkaltzeko etxeratzen zan eta ordu erdiko lotaldi laburtxu bat egin ostean, barriro asten zan bearrean Erriberan lauretan, gaueko bederatziek arte. Ibai ertzetik, errosarioa erreztatuz joaten zan etxera. Egunoro Kristau Urtea irakurri ostean oeratzen zan amarretan.

Arauzko bizimodu au Bilbon egoanean egiten eban, noski. Euskalerrian zear egiten ebazan osteretan eta atzerrira urten bearrean aurkituten zanean beste ordu batzuetara moldatzen zan. Toursen, adibidez, goizeko bostetan jagiten zan eta bere erlijiozko zeregiñak bete ondoren (eguneroko meza ez eban egundo emon barik itxi) Iztegiaren moldiztegi frogak zuzentzeari ekiten eutson zazpiterdietatik eguerdiko amabiak arte. Lanean asten zan barriro ordubiterdietan arratsaldeko zazpirak arte. Gero inguruko eliza baten organua jotzen, idazten edo irakurtzen, txinera edo japoniera ikasten emoten eban denporea.

1913.eko otsaillaren 13an il iakon Bilbon Maria Karmen Aberasturi ama. Bere arreba neska zarrarekin iraun eban aurrerantzean; etxeko lanakaz arduratuten zan Diana, eta Aurora, maistra zanez, bere ogibideko lanetan ziarduan. Etxeko iru ezkonbakoen adiñak Felisaren laguntasunaz baliatzera beartu zituen. Diana(1934) eta Aurora (1937) il ziranean, Felisaren aizta Margarita be gelari artu eban. Areago, 1951an Azkue il zanean, il zorian egoanean, aurrean egoten ez ziran alabak ausartu eta Felicitas Zarraga amari dei egin eutsoen larritasun aretan.

Azkueren beste arreba bat, Sol, ezkonbage eta au be maistra zan eta Lekeitioko Ezpeleta kalean, 32 zenbakiko etxean bigarren so-lairuan bizi zan. Etxe onetan emoten ebazan Azkuek udaroko opor egunak, Uztaillaren 7an urtero eta utsik barik, atsedinari asiera emonez. Jaioterrian irauten eban eta San Antoliñak eldu orduko Bilbora itzuliten zan barriro lanean asteko.

Celestino Maria del Arenal Bilboko Notariaren egiaz-tapenaregaz siñatu eban Azkuek testamentua 1946.eko Uztaillaren 3an eta aipatutako Gregorio Maidagan eta San Nikolaseko organularia, Jorge Villa Cobian, oinordekoak izendatu ebazan. Azken oneri musika ikasketak emon eutsozan Azkuek eta aitabitxi izan zan Meza Barria Begoñako Karmeldarretan 1925an emon eban. Bere neskame biei itxi eutsen legatu gisa amabost milla pezeta eta akzioen batzuk.

Bere azken ordurarte ekin eutson lanari. 1951.eko Urriaren 22an, lana amaitu ostean etxera joianean, Nerbion ibaira jausi zan eta Fernando Voz Peña jaunari esker, uretatik atara eben. Baña ordurako kutsatuta egoan ibaiak agintzen eban urdail garbiketarik ez eutsoen egin eta osagillearen agiriak azaldu eban, esteriz il zan Azaroaren 9an arratsaldeko seiterdietan. An egozan, oearen inguruan, Federiko Krutwig euskaltzaiña eta Jorge Villa eta Emilio Ocano abadeak, eta organulariak biak. Urrengo egunean, goizeko amaiketean ospatu ziran Bariko San Nikolas elizan Azkueren aldeko elizkizunak eta an egozan makina bat abadek gregorianozko Requien Meza abestu eben. Elizkizunetan agertu ziran, erritar askoren artean, erriko eta elizako agintariekin Oleaga, Krutwig eta Gorostiaga euskaltzain jaunak.

Resurreccion Maria Azkueren gorpua Vista Alegre kanposantuan lurperatu eben, Amaikagarren illen Liburuan, 142.orrialdean, 99 eriotz agirian ikusi daikegunez.



# Sabino Aranaren ekintzak Euskadiren alde

*Zenon Uriguen, Pasiotarra*



## Euskaldun Batzokia (1894-1895)

Sortu ta lanean ari zan Bilbon, Correo kallean, eta emen zabaldu zan lau aizetara leen aldiz, euskal ikurriña, arratsaldeko seiretan, uztailaren 14an, 1.894an. Urrengo egunean batzarrera egin zan, batzar buru Sabin izanik. Batzarkideak 50tatik gora izanik. Leen erabakia izan zan “Jaungoikoa ta lege zarra” eta bere elburua zazpi euskal errialdeen elkargoa eta bateratzea: Araba, Benebarra, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nabarra ta Zuberoa, eskubide bardiñakin legeak betetzeko, askatasuna banatzeko, giza eskubideak legez bizitzeko, eta Euskera izan daitela gure erriaren izkuntza.

## Alderdi barria sortu ta ezarri.

Sabino Arana Goirik 1895 urtean erabaki eraginkorra asmatu eta beteko dau: Euskadiren Alderdi Barria (J.E.L) sortu eta Batzar nagusian zintzo eta zindo oñarrituko da. Batzarkideak ziran: Sabino Arana, Luis de Arana, Fabian de Izpizua, Elias de Lekue, Juan de Aranburuzabala, Ziriako de Llodio, ta Salvador Etxeita. Gertaera zoragarri onetan agertzen da Euskadi zijilua egiztatua izenak emonez. Zorionez gaur egunerarte pozik ta biziro ospatzen dogu ekintza goragarri ori.

## Euskadiren edestia eta izkuntzaren pizkundera.

Sabinon ekintzak gero eta geiago ta gorago doaz eta erabakitzen dau oso bearrezkoa dala **ARGITALETXEA: “Bizkaiaren edestia ta izkuntza pizkundera jaso, aztertu, idatzi ta zabalitzeko”**. Sabino jauna, ekiñarez ekiñez, eten barik jardungo da, euskera gaietan idazten. Ara emen bere idazlanak: “Tratado etimologjiko de



los apellidos Baskos” (1895). “Lecciones de ortografía del Euskera Bizkaino” (1896). Auxe da Argitaletxean eginiko lenengo idazlana. Arrigarria da benetan Sabinekin egindako ekintza ori euskera idazkera, ortografiari buruz jarritako araudiak barri ta garbiak, eus-

kerari euskal ganora emoten dautsonak mundu zabalera osoan. Elizalde jaunak diño: “300 orrialde urregorritzkoak” dirala. “Egutegi Bizkaitarra”, “Umeen lenengo adizkidea” umeei euskera irakurri eta ikasteko. (1897)

*“Ni enaz bizi neuretzako. Ni bizi naz Euskadiren onerako. Nire biziaren illunabarrian, bai, sortu ta biztu daitela “Askatasun eguzkia”. (Sabin). “Zorionekoa gauzen iturburuak ezagutu al zituen” (Virgilio)*



## SANTOS JUANES PARROKIA



**L**enengo aitatuiko dogun Parrokia, Santos Juanes deritxona dogu. San Antonen eleizaren ondoan egon zan. Alde batean gaxotegi bat egoan, eleizatxu bategaz bat egin da. Gaxotegia gaxoentzako eginda egoan batez be Santiago erromesen atsedenerako. Eleizea, denporagarrenean Parrokia biurtuko zan. Itxuraz gotiko erara eginda egoan, bere dorre ta guzti.

Barrua sabai batekoa zan aurrez aurre San Juan Bautistaren erretabloa ikusten zan; alboetan Kristoren Vera Cruz ta Bakarteko Amarena. Illobiak solairuan, lurrean zear, arripetan, arkituten ziran.

Denborakarrenean uriolagaitik, kalte andiak egin jakozan eta gordeleku lez biurtu zan. Alan da be gauza bitxi bat aitatu bear da eleiz onetan agertuten zan zaletasuna Santa Vera Cruz kofradiaren bitartez. Asikeran Eguen ta Bariku Santuz antzeztuten ziran Kristoren atzillotzea ta beste eginkizun Nekaldikoak. Zarrenetarikoa 1700 urtekoa da. Arantzazko koroia Burgosen egindakoa da, Manuel Romero izenekoak. 1770an Kofradia aldatzen da Cruz kaleko eleizara, zeuzkan gauza gustiekaz. 1924an beraganatzen dau Kintin de la Torrek tajututako "Ortuko Otoitza". 1926an egille berberak egindako "Kurutzetik jatziera" ta "Iru Kurutze" deritxona. 1944an agertzen da "San Juanen" irudia Jose Larrea Etxanizen eskukoa. Urte berean ikusten da Higinio Basterrak egin eban "Kristo etzana". Eta 1947an Ricardo Iñurrietak osatu dauen "Zigorkadea"



Cruz kaleko Jesuiten Parrokia. Asko lagundu eban orretarako San Francisco Borjaren Bilboko egotaldiak. Bai ta A. Landaida, Jesuiten ikastetxeko Zuzendariak, San Iñazio Bizkaiko Zaindaria lortearren egin ebazan alegiñak. Aitatu bearezkoa Parroki orretan egon zala Cardaveraz Aita, Jesusen Biotzaren zaletasuna nonai edatzen eta Parrokiko elizan zaletasuna sendotzen.

1767an kanporatu ziran Jesuitak Bilbotik, minduta itxiaz ainbat jende eleizara joaten ziranak. Karlos III erregearen agindua "Estaduaren onerako eta seguridaderako zalako" Je-

suiten San Andres Ikastetxea, Santos Juanes Parrokia biurtuzan. Sarrera eta barruko egiturak Rococo erakoak dira.

Erretaula aurre aurrekoa, alboetako kapelak, aberats eta ikusgarriak. Ainbat Santu ta Santaen irudiak kokatuta daude eurretan. Adibidez San Pedro ta San Paulo, San Juan Bautista (bi metrokoa) San Andres, Neketako Ama, Ecce Homo, San Inazio, San Francisco Xabier, San Luis Gonzaga, Santa Lucia, Santa Ageda, San Jose, San Bruno, San Rafael... etabar.

Bitxiak dira eleizkizunetan erabiltekoak: Kustodiak, andi

ta txikiak, intzenontzia, Koppoiak, Kalizak, Jofainak...

Pontea ta Jaun ospetsuak: Juan Crisostomo de Arriaga, J. A. Victor Agirre, Pedro Fontecha Salazar, Pedro Novia Salcedo, Gabriel Henao, Agustin Cardaberaz, Estanislao Jaime Labayru.

Asko ta asko izan dira Santos Juanes Parrokietan lan egin daberen abade eta eleiztar jainkozaleak. Bastertuta egon daitezke munduan, baña ez Jaungoikoaren aurrean.

**MUNETXEK egokitua**







## Manuel de Larramendi

*Zenon Uriguen, Pasiotarra*

### Jatorria:

Andoain errian, Garagorri baserrian, jaioa dogu 1690 an. Egia esateko Manuel de Garagorri, bere aitaren abizena izanik, bere amak Larramendi, bere abizena jarri nai... eta betirako izango da Manuel de Larramendi.

### Bere izaera:

Mitxelena jaunak argi ta garbi diño “Euskal idazlanetan Larramendik emoten dautsola euskerari asiera barri eta eraginkorra eta batez be kultura maillan giro trebea eta jakituriz jantzia”. Larramendi jaunari jatorriz eta jasetik dator kio, barne-muiñetan josita, gaurko gizarte illun eta naastuan adorea eta kemena dakarren deadar bat entzun, eta eragitea. Bere barruan, su ta gar, bor-bor, kezka bizia sentitzen dau: Aspaldi onetan Euskal errian euskera bera ta bera doa. Zer egin? Bide barriak amets egin eta eragin nai ditu. Buru makur eta etsimendurik aurkitzen da gure erria euskera gaietan. Larramendiren izate-muiña euskera gaietan beti izango da baikorra. Ekin eta jarrai. Nortasun aberats eta jator baten jabea izango da, eta bere biotzean euskerak txoko zoragarria dauko.

Euskaldun guztiak euskeraren alde zintzo jokatzera nai dau, bakotxak bere egitekoa aurrera ateratzeko arnasarik galdu barik naiz eta geroa illun eta baltz ikusi. Origaitik bere mezua da: “El imposible vencido” au da: “eziña, bein beinean egiña”. Auxe da bere ikurriña, bere aupada ta erronka euskaldun sinesgaitz diranentzat euskerari eta etorkizunari buruz. Larramendi-ren joera eta jomuga bere bizi osoan auxe izan da: “altius, citius, fortius” “gorago, ariñago, indarsuago” izan eta ekin.

### Larramendiren jakin miña:

Manuel ez da geldi egoteko mutilla. Eta amazpi urtekin erabaki zintzo eta sendoa artzen dau bere etorkizunari buruz. Jesuiten artean sartzen da Bilbon eta profesia egin 1726



urtean. Bere burua eta bizi osoa jakituriz jantzi nai dau. Filosofia eta teologia ikasteak egingo ditu. Ikaskuntza onetan erakutsiko dau bere buruaren gaitasun aintzagarria. Salamanca ta Valladolid'en maixu ospetsua izango da, baita be sermolari ona ta fedez betea.

## Idazlanak euskeraren alde:


“El imposible vencido”. Gramatica moduan idatzia. Gaurko euskal gaietan jakintsuak, ”ontzat eta aintzat artzen dabe idazlan ori” (Villasante) –Diccionario Trilingue del castellano, euskera y latín” Idaz-lan onetan Larramendik egokiro diardu euskeraren edertasuna zaintzen ta gorespina egiten. Zintzorro baieztutzen dau euskera Espaniako leen izkuntza dala. Gogoz adierazten dau euskeraren leentasuna ta baliotasuna. Euskeraren aurkariakin sarri izango ditu tirabirak. Eta eurek ixiltzeko ara emen bere argibidea: “lotsatuta nago gure artean idazlanak erderaz egiten dituen idazlariekin. Euskaldunak dira eta erderaz ari dira euskeraren kontra. Euskaldunak izanik bidezko ta onuragarria da euskeraz egitea gure historia”. Ikasgai egokia orduko eta gaurko euskal idazle askorentzat.

Eta azkenik Larramendik argi ta garbi esaten dau Europako izkuntzetan euskera dala leen izkuntza garbia, zolia eta bizia. Europako lurradeetan lenago latin egiten zan. Baña latinek aspaldi kuku egin dau gure lurraldetan eta mundu zabalean. Euskerak, barriz, egunetik egunera indar barria eta iraunkorra artzen dau. Manuel Larramendi bere azkenengo urteetan Loiolan bizi izan zan eta emen il zan 1766 an, 76 urtekin.





# EUSKALERRIAREN EDESTIA-I (III.)



## 2. ZATIAN.

### Sarrera.


Sinistu eziñekoa da, mundu onetako gizartea jakintzan ain mailla aundikoa izan eta kontuan artu ez, guretzat asierazko denborak eta gaurkoak bardiñak dirala.

Jaungoikoarena izanda Izadi onen sorraldi au, ludi onek guretzat ez dauka asiera eta amairerarik, ez eta gitxiago gure eskuetan bera ezereztuteko almenik.

Guk, gaiaren arloetan eta gizartearen arremantetan egin gein-ken guztia, egitarau<sup>(1)</sup> eta azpiegiturazko<sup>(2)</sup> antolakizunetan erabili bear dogun oiturazko asmakuntza edo ta ekanduzko iritzietan mugatzen da.

Eta errigizarte artearen ekanduzko arremantetan gaur ikusten doguna, gorrotogarria eta ikusiaz batera naska emoten dauan gauza da.

Mundu onetako **gizakituak** sortzailleak ez garelako, gure gauza guztietarako egin bear doguzan asmakizunezko egitarauetan, Jainkoak bereztuta ta danontzat bardiñak diran legearen baldintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementuak lez.



Eta ortik aurrera, zentzu ta ardura andiz jaso edo ta gauzatu, gauzatu bear direnak bizi garan serbitzurako; bestela egiten dogun guztia, oker, ankazgora, zentzubage ta neurrian edozein gauzatan urtengo leukezelako orekak leku guztietatik galdu ondoren, beartsu edo onbear eta aberastuten diranen artean gaur gertatzen jakun lez.

Bereztasunaren legezko baldintza orreik dira, gaurko Europaren politikuak tresneri lez kontuan artu bear dabezanak gauza guztietarako, eta ekanduzko ardura bardiñak diruzko zor-eskubidearen arremantetarako, ordezkartzazko antolaketak egokitzen dabezenean.

Gaiak, beren Ludi irudiaren izaerarako daukazan mukulluak<sup>(3)</sup>, orokorrezko askatasunean bananduta egonaz batera, bere irudiaren eraikintzarako, mukullu arteko gintzan daukien erakarrezko indarra, eurak osagarritasun-

(1) Egitarau = proyecto, regla, método. (2) Azpiegitura = infraestructura, subestructura, parte inferior, base o cimiento. (3) Mukulluak = polvo, átomos.





nezkoak izan daitezen legea da, ta bide batez gurentzat indar orreik ulermenduta, gure arteko osagarritasunaren eragilletasunerako, garrantzi aundiko bizi-tresneri bat.

Orregaitik, *Izadi oneitara Jaioten garan guztiak, zorreskubideko ardurean bardiñak izanda, bear bearrezko ordezkartzan jaioten bagara, Ludi onek berezuta daukazan lege orreik dira, gure arduraduneko arima gizatuari lege bardiñean, osagarritzkoak izatera alegintzen dauzkuna, Jainkoaren legeagaz, gaiaren antzera, zeregiñ bardiña daukagulako.*

Eta egiten doguzan gauza guztiak Jainkoari begira, azturazko maitasun osoan egiten diran lez, azturazko bide orreitan eraikitako izkuntz, etxe, auzo, erri, eskualde edo lurralde, aberri, eta errigizartearen askatasuneko eskubide orreik dira, oiñarri lez ipini bear doguzanak, bizitz onetan askatasuneko orekan irautea gura badogu.

Danon begirunezko ardureak bear doguzelako ortik aurrera, gai-gizaren bizitza onentzat egiten doguzan egitamuak zentzuz gauzatzeko, eta alkar erabili bear doguzan osagarritzko bideen ulermenak, orekazko zentzun baten eroan bear doguz.

Guzti orreik kontuan eukinda, ez bagaude lau gizaki nagusitasunekoagaitik bideratuta, ainbeste urte menperatzailletasuneko agindupean egonda, ori be al izan leikena dalako, eta nire ustez **ziurtasun guztiagaz.**

Gaurko politikuak, gai eta gizaren eskubideak, ez dabezela oiñarritzen, agindu egiten dabezan gauza

guztietan, sortzen dan entrabaloaren eragipeneko indarragaz, gai-giza arloetan dana agertzen da ankazgora edo nastuta lez.

-Gaiaren-orekan: Itsas-errekako urak eta mendi-lur-aizeak zikinduta.

-Gizaren arloetan: lan-eza, lapurtza, negarra, gosea, gaitzaldi, elde edo izurriteak<sup>(1)</sup>, eriotza, borroka, aitu eziña, eta arduragabekerizko itsutasun aundia.

Bizitzeko egiten doguzan gauzaren mozkin guztiak, batzango edo norkerizko agintari zaleak euren kontrolpean eukiteko, guda-indarrezko keiñada gogorak erabilia, nai gaiaren edo ta danon giza-eskubideko ardurak kendu egiten dauskuez, eta ez gero eurak egiteko danok egin bear doguzanak, ostera guri beartzeko baiño, eurak gura daben eratara betetea, eten-bageko menperatzail ekintzan.

Len, munduko borroka nagusi battegaz, dana utsezko zenbakian ipinita lez azten ziran ostera bizitzarako bearzan guztia eraikiten, euren poltsikoak beti berriz beteta eukiteko.

(1) Elde edo izurriteak = peste, epidemia.

Baiña gaur beste alango borroka bat egiteari, eurak be bildur direlako, demokraziaren indar bidez, maltzurrezko guzurrak eten barik gero ta indar geiagorekin argira igoten dabe, eta orain 1.687 urte bereztasunaren aurka Nizean asmatu zan batzangotasunaren goitik berako agintaritzaren giza-gorputz ori, guztiz ustelduta lez agertzen jaku.

### Zergaitik ?.

Gure bizitzaren epe laburrerako, Jainkoaren legeakin beartuta agertzen garean lez, argi erakusten jaku:

- a) Osagarritasunezkoak gara la jaioten garan guztiak.
- b) Kudeatzaille edo gai onen eragilletasunerako jaioten garela.
- d) Gure eragilletasunean orregaitik, gai ta giza guztiaren eskubideak *kontu aundian artu bear dituguzela ezeren aitzakia barik*: banaka, talde, leiñu, edo ta errigizarteak euren bereztasunezko aztura bidetik izkuntzagaz sortu ebezan nortasunezko bereizkotasunak, nai banaka edo ta errigizartearen arteko ulermenean bereiztasun bardiñetan sartuta, danak eskubide-dunak diralako.

Eta gorputz ta izkuntzetan egoten diran bardin-ebak, bakotxa, auzo, leiñu ta errigizarte lez, barkardadean bizi dan toki-inguruak emoten dautsielako da.

- e) Asmatzaillearen almenak barkarrrik eukinda, gure almenean ez dago iñungo izatasunik: “irazole, sortarazle edo eta sortzailletasunezko arloetan”.


Orregaitik, gure zentzunezko alegiñetan, iñorentzat ezereen legerik egin barik, alegiñ guzti orreik, Jainkoaren legeditik artu bear doguz, euren kanpotik lege guzti orreik, norkeriaren menpekotasunetan biurtzen diralako.

- f) Ala, mundu oneitara, beste gauza baten bat egiteko etorri ote gara ?.

### Zetan ete gabiltz ?:

Jainkoagan eta bere legeetan sinismena sendotzen, ala, sasi-jainkoarenak egiten ?.

Ludi onen sorraldiagaz bear dogunerako, dana dago asmatuta, gure asmakizunetarako bere gai-kopurutik bereiztuta artu bear doguzelako gai-indarrak. Or dagoelako bear dogun guztia.







Mundu onetara jaiotzen garanean, gure arima gai-gorputzagaz mozorrotuta agertzen da, asmakuntzaren egikerarako bear dauan zentzumen eder eta mirariakaz.

Danak bardin eta bearrezko eskubide bardiñakaz jaioten bagara: *bear doguzan gauzetarako, zelan erabili bear ote dogu gorputz ori?*

## Gudan ?.

Ala, nortasunaren baitazkoak izanda, gaia eta gu bere legeakaz erperatuta egonda, arimaren arrazoizko zentzumenean, ulermen onak alegintzen dauskun lez ?.

Or, ez liteke zalantzarik egon bear.

Argi esan gura dau guzti orrek, beste aukerarik ez dagoela, ordezkartzaren ekanduzko bizi batera jaio garalako.

Ordezko ardura orreik baiña, zelan erabiltzen doguz ?.

Saiatuko naz naste-borraste orreik argitzen,

oraingo Euskalerrriaren edesti onen ardurazko idaz-sail bidetik.

Leen, oso polita dalako, eta bigarren euskaldunen ardurazko begiak zabaltzeko, oso argigarria dalako.

## Omo-Sapiensen ta aurreko Neandertal gizakia.

### Europa sortzen.

- Pleistozeno aldia: 2.000.000
- 1.800.000 urtetan asi eta orain 11.000 urte amaitu zan.
- Paleolitiko aroa: Iru alditan banatzen da: Be Paleolitikoa K.a. 1.000.000 urte inguruan asi ta, 150.000 urte ingururarte.

Arriaren aldia, 1.000.000 urtetik, K.a. 3.500 urte igururaino da.

Eta K.a. orain 500.000 urte inguru, Europa, bere lurraldetara sartu ziran lenengo<sup>(1)</sup>

(1) Ez ote ziran ariñago beste giza-mota batzuk ?.



Neardentalak egin eutsoen, eurak izan ziralako bakarrik geratu ziranak, *Wurm* deritxon azkeneko izotz-aldi ostetik.


- Erdi Paleolitiko aroa: K.a. 150.000 urte ingurutik 40.000 urte ingururarte.
- Eta Goi Paleolitiko aldia: K.a. 40.000 urtetik 9.000 urte ingururarte.

Oso luzea izan zan aroaldi au eta bitartean ainbat giza seme bereziko motakoak sortu ta galdu ziran, orain 30.000 urte Omo Sapiens agertu arte.

Europar ezagutzen doguzan leenengo Kromañoi-gizakiaren azurrak, orain 50.000 urtekoak dira, 1.856an Alemaniako Rhur ibarrean aurkitu ziranak, eta orregaitik eroaten dabe ibarraren izena: Neanderthal-Arana, Düsseldorfetik urbil dagoena.

Europa ta Munduan egiten dabezan iker-lanak eta adibidez, erdiurte onen Granadako

lurraldean, Orze<sup>(1)</sup> deritxon errian aurkitu diran gizaren eta bere tresnerien aztarnak, orain milloei ta erdi urtekoak izan arren, Europako gizaren benetako bilbakuntza<sup>(2)</sup>, orain 300.000 urte inguruan daukala bere asiera, eta Neanderthal gizaki onegaitik esaten dabe, *Wurm* deritxon laugarren izotz-aldi ostetik, orain 100.000-30.000 urte artean bizi zala eta osteko iker-lanetan 100 gizon emakumeen azur-ondarrak baiño geiago aurkitu dabezala Europa guztian.



Txikerra ta indartsua izan zan antza, eta bere jakintzazko-izatasunean, Omosapiens<sup>(3)</sup> baiño, beragoko mailla batekoa izan ei zan.


Siberian, Jaba eta Rhodesian be aurkitu ziran beren azurrak.

Eta Omosapiensen baiño ariñaukoa zana, edo Neandertal eta Omosapiensen bitartekoa zan gizaren besondoko azur eta agin batzuk, Arrasaten, Leizetxikiko arzu-loan aurkitu ziran.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.017ko urtean Urrillaren 16an

(1) Orze = Orce. (2) Bilbakuntza = evolucìon. (3) Omosapiens = Kromañoen.



# IPUIN SARIKETA

## IRABAZLEEN IZENAK

1. Saria: Juan Manuel ETXEBARRIA
2. Saria: Ziortza ARRIEN
3. Saria: Palmi MERINO
4. Saria: Asier LEGARRETA
5. Saria: Arantza LENIZ

# Euskaldun barrientzat <sup>ikasten</sup> Zazpi utsak



### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....


..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



**Trakatan, trakatan  
iru errege,  
trakatan, trakatan,  
Belenera,  
Belenen jaio den  
Jesus aurtxo  
trakatan, trakatan  
agurtzera.**

**Meltxorrek, trakatan,  
zaldia beltza,  
Gasparrek trakatan,  
zaldi gorri,  
trakatan, trakatan,  
Baltasar zaarrak  
zaldia, trakatan,  
zuri-zuri.**